



# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GIPUZKOA IRAUNKOR  
BAT ZABORTEGIRIK  
GABE



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**  
**GIPUZKOA IRAUNKOR  
BAT ZABORTEGIRIK  
GABE**




Gipuzkoak hondakinak modu eraginkorrean eta iraunkortasunez kudeatzeko proiektu bat du. Konponbide horren arabera, 2014-2015 bitartean konpostatze plantak, tratamendu mekaniko-biologikorako planta bat eta hondakin bizigabeetarako gordailu bat eraiki eta, aldi berean, gaur egungo zabortegeiak itxiko dira: **Urteta** (Zarautz), **Lapatx** (Azpeitia) eta **Sasieta** (Beasain). Proiektua bidean dago, hasita baitaude Epeleko (Bergara) konpostatze planta eraikitzeke lanak, eta hari esker, hondakinak kudeatzeko sistema burujabe bat izango du Gipuzkoak, errausketarik eta zabortege kutsagarririk gabea, ingurumena eta herritarren osasuna errespetatuko dituena eta Europako Batasunaren irizpide eta lehentasunekin bat egingo duena. Proiektuak, bestalde, baliabide nahiz diru asko aurrezteko ahalbidetuko du.

Errausketarik gabeko egoera batean dator ekimena: iazko azaroan GHKk eta Zubietako planta eraikitzen ari ziren enpresek akordioa lortu zuten, eta Gipuzkoan aukera berri bat zabaldu da politika iraunkorrago bat gauzatzeko. Proiektuaren zutabe nagusiak honako hauek dira:

- **Gaikako bilketa % 60 izatea** 2016rako, GHHKPOk (PIGRUG) jasotakoaren arabera; hau da, 195.000 tona hondakin gaika bilduko lirakeke, eta 130.000 tona errefusa izango lirakeke.
- Gaika bildutako hondakinak hiru konpostatze plantatan tratatuko dira, dagoeneko lanean ari diren beira, paper eta ontzi arinen zentroez gainera.



- **Lapatxeko** (Azpeitia) gaur egungo plantak **3.500 tona organiko tratatuko ditu** urtean.
- **Epelen** (Bergara) eraikitzen ari dena **10.000 tona tratatzeko gai izango da. 2014. urte bukaeran** lanean hastea aurreikusi da.
- **Zubietan** beste konpostatze planta bat eraikiko da. Planta hau, hasieran, **20.000-30.000 tona** tratatzera irits daiteke, baina malgutasun kontzeptuaren barne, handitu egin lezake ahalmen hori, fluxuen bilakaerari behar bezala erantzuteko. **2015. urte bukaeran** hasiko da lanean Zubietako planta.
- Hiru konpostatze planta horien artean Gipuzkoan gaika bildutako materia organiko guztia tratatuko da.
- Lehen aipatutako gaikako bilketa tasarekin, **130.000 tona errefus** geratuko dira, **tratamendu mekaniko-biologikorako (TMB) planta batera eramango direnak, Zubietara.**
- **TMB plantak 170.000 tona** ere jaso ahal izango ditu **urtean**, eta **2015. urte amaieran** hasiko da lanean.
- Tratamendu mekaniko-biologikoaren bidez materiaren zati bat berreskuratuko da, gero konpostatu edo birziklatzeko, eta kenduko dira airera doazen isurkin kutsagarriak (gasak) nahiz lur azpira doazenak (lixibatuak). Horrela, **berreskuratu ezin diren hondakinak** (65.000 tona) **bizigabetu egingo dira, eta ez dute ez usainik ez kutsadurarik sortuko.**
- **Materia bizigabea gordailu batera eramango da.** Gordailu horren kokalekua aurten erabakiko da Lurraldearen Arloko Plana aldatzeko prozesuan, eta



balizko hainbat aukera aztertu ondoren, legeak agintzen duen moduan. Bizigabeen gordailua ere 2015. urte amaieran hasiko da lanean.

- **Azpiegitura hauek eraikitzearekin, itxi egingo dira** gaur egungo zaborte-giak **Urtetan** (Zarautz), **Lapatxen** (Azpeitia) eta **Sasietan** (Beasain).
- **Urtetako zaborte-gia 2014ko abenduaren 31rako itxiko da.**
- **Lapatxekoa 2015ko apirilean itxiko da.**
- Eta **Sasietakoa, 2015. urte amaieran.**
- Foru Aldundiaren proiektuari esker, beraz, **Gipuzkoak ez du zaborte-gi kutsagarririk izango.**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**  
**UNA GIPUZKOA SOSTENIBLE**  
**SIN VERTEDEROS**



- Foru proiektuan jasotzen diren azpiegituren **kostu osoa 131 milioi euro** izango da (errautegiaren 400 milioi euroren aldean).
- Era berean, **ehun bat lanpostu zuzen sortuko dira.**

Foru Aldundiaren ekimenak hondakinak kudeatzeko sistema osasungarri, iraunkor eta ekonomiko bat ezarriko du, Europako Batasunak prebentzio, berrerabiltze eta birziklatze arloan ezarritako lehentasunak erabat betetzen dituena. Herritarrekiko konpromiso bat da, datozen belaunaldien eta gure ingurumenaren aldekoa, eta erantzukizunak bultzatuta hartua. Egitasmo honek oinarri sendo bat jarri nahi du, arazo honi konponbidea emateko datozen hamarkadei begira; sistema malgu bat, non azpiegiturak hondakinen sorrera, konpostatze eta birziklatzearen bilakaera sozialera egokitu ahal izango diren. Gure lurraldean ahalik eta adostasun politiko eta sozial zabalena lortu nahi du Foru Aldundiak.